

Jar ezazu hutsunę bakoitzean esapide hauetatik egokiena:

- Halako batean
- Duela urte asko
- Orduan
- Gau batean
- Hurrengo egunean
- Azkenean
- Egun batean
- Handik aurrera
- Azkeneko
- Bitartean


ERRALDOIA ETA IPOTXAK


....., baso batean, herri txikitxo batean, ipotx batzuk bizi ziren. Baratzean egiten zuten lanaz eta basoko animaliengandik lortzen zutenaz ateratzen zuten bizimodua. Baina, baso horretan bertan, erraldoi bat ere bizi zen, gaztelu batean, soldaduz inguraturik. Erraldoia aspertuta zegoenean, denbora-pasa, ipotxei kalte handiak egiten zizkien: etxea apurtu, baratzekeo jakiak lapurtu, haien animaliak jan, etab. Ipotxak izututa bizi ziren, beti erraldoiaren beldur.

....., ipotx ausart batek erraldoiaren etxera joatea pentsatu zuen. Gaztelura joan eta ate atze batean ezkutatu zen

armiarmaz mozorrotua. Horrela erraldoiak esaten eta egiten zuen guztia entzun eta ikusiko zuen eta planen bat asmatu ahal izango zuen, erraldoia hiltzeko.

....., honako hau esan zion erraldoiak soldadu bati:





-Bihar joan zaitez ipotxengana eta ekar iezazkidazu bi ipotx, baina hilik, barruan zer duten ikusi nahi dut eta.

Ipotx ausarta, erraldoiak soldaduari eman zion agindua entzun zuenean, lasterka abiatu zen beste ipotxengana, eta erraldoiak esandakoaren berri eman zien. Orduan, ipotx batek kutxa batetik liburu zahar bat atera zuen, liburu horretan loarazteko hauts magikoa sortzeko formula zegoen idatzita, eta gau eta egun lanean aritu ziren ipotx guztiak, hauts magikoak sortzeko osagaien bila eta nahasketa egiten., sortu zuten loarazteko hauts magikoa.

....., erraldoiak bidali zuen soldadua ipotxengana hauetako bi hiltzeko eta soldadua sartzen ari zela ipotx ausartak hauts magikoa bota eta soldadua berehala lo gelditu zen. Ezpata kendu, kateekin ondo lotu soldadua eta erraldoiaren gaztelurantz abiatu ziren ipotx guztiak hauts magikoarekin. Bidean aurkitzen zituzten soldadu guztiei hauts magikoa botatzen zizkieten eta soldaduak lo gelditzen zirenean ezpatak kentzen zizkieten., erraldoia zegoen gelara iritsi ziren eta honi ere hauts magikoa bota zioten, baina erraldoia ez zuen loak hartu eta ipotxak harrapatzen saiatu zen.

....., ipotxek hauts magikoak bota eta bota jarraitu zuten eta azkenean erraldoia loak hartu zuen.

....., gazteluari sua eman zioten eta hantxe erre ziren erraldoia eta bere soldaduak.

....., ipotxak oso pozik eta bakean bizi izan ziren haien etxetxoetan.

GOIOGANA, Urtzi: "41 ipotx eta erraldoi bat"
ikastolako lana, 1994
ipunean oinarritua.

